

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Etxebizitzen zaharberritzea % 59 gehitu da 2018ko lehen lauhilekoan legearen eta fiskalitatearen erreformen ondoren

*Urte hasieratik 7,5 milioi inbertitu dira Estatuaren laguntzekin bateragarriak diren dirulaguntzetan*

Asteartea, 2018.eko maiatzak 22

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak ezagutzera eman ditu asteazken honetan etxebizitzak [zaharberritzeko programek 2018ko lehendabiziko lau hilabeteetan lortutako emaitzak](#).

Departamentuak maneiatzen dituen datuen arabera, % 59 gehitu da zaharberritze-lanak hasiak dituzten etxebizitzen kopurua 2016ko epealdi bereko datuen aldean, urte horren bukaeran onartutako [Foru Legearen](#) pizgarriak gauzatu direlarik. Jabeen komunitateek eraikinak zaharberritzeko jasotzen dituzten dirulaguntzen fiskalitatearen hobekuntzak ere, 2018rako Aurrekontuei buruzko Foru Legearekin batera onartuta, bultzada eman die zaharberritze-lanei.



Etxebizitzak zaharberritzeko 2014az geroztik emandako dirulaguntzen bilakaerari buruzko grafikoa.

Kontuan izan behar da, aurten hasita, eraikinak zaharberritzeko jasotzen diren dirulaguntzei ez zaiela zergarik ezarriko, baldin eta laguntza jasotzen duenak urteko 30.000 eurotik beherako errenta badu.

Nafarroako Gobernuak banatzen dituen zaharberritze-lanetarako laguntzak bateragarritzat jo ditu Energia Ministerioaren menpeko IDAE erakundeak. Honek % 30eko dirulaguntza osagarria ekar dezake, bereziki eraikinen ingurutzailerak termikoei dagozkien erreformetan.

Zehazkiago esanda, 2018ko lehendabiziko lau hilabeteetan, 1.971 etxebizitzari dagozkien zaharberritze lanak bideratzeko 470 espediente tramitatu dira. 2016ko epealdi berean, 1.239 etxebizitzari zegozkien 196 espediente izapidetu ziren. Gobernuak orduan 5.876.805 euro inbertitu zituen, aurten banatuko dituen ia 7,5 milioien aldean. Iaz ere, Legearen onarpenak eragindako estimuluen lehenengo ondorioak antzematen hasi ziren, etxebizitzen zaharberritze-jardueraren igoerarekin. 2017ko lehenengo lauhilekoan, 1.517 etxebizitzari zegozkien 288 espediente izapidetu ziren, dirulaguntzetan 7.176.238 euro banatu zirelarik.

Ikuspegia irekiz gero, 2015eko lehendabiziko lauhilekoan 1.482 etxebizitzari zegozkien 851 zaharberritze espediente izapidetu ziren,

ekitaldi hartan dirulaguntzetan 3.332.975 euro banatu zirelarik.

Adierazle guztiek (espedienteen kopurua, dagozkien etxebizitzaren kopurua zein zaharberritzea diruz laguntzeko aurrekontua) igoera adierazkorra izan dute azken hiru ekitaldian, Nafarroako Gobernuak legealdi honetan etxebizitzaren zaharberritzea eta bereziki eraiki berriarena lehenestearen alde abiarazi duen politikaren harira.

### **Enplegua bultzatzea**

Izapidetutako espedienteek 21 milioi euro inguruko inbertsioa suposatzen dute (20.902.786 eurokoa, zehazkiago esanda) Nafarroako Gobernuak emandako % 30etik gorako laguntza (aipatutako 7,4 milioiak) jaso duten higiezin jabeentzat.

Eskubide Sozialetako Departamentuak lideratutako prozedurak enplegua bultzatzen du eraikuntza sektorean. Etxebizitza Ministerioaren 2010eko apirilko txostena erreferentziatzat hartuz gero, zaharberritze-lanetan inbertitutako milioi bakoitzeko 56 lanpostu sortzen dira. Horren harira, lehendabiziko lauhilekoan, etxeak zaharberritu eta egokitzeko lanek 1.000 lanpostu baino gehiago sortu edo atxiki dituzte Nafarroan, 1.117,6 aipatutako formularen arabera.

Gogoan izan behar da, Estatu osoan parekorik ez duen prozedurari esker, Nafarroan zaharberritze-lanetarako dirulaguntzen deialdia urte osoan irekita egoten dela, eta lehia-konkurrentziazko prozedura ez denez gero (ez baitago espedienteen gainean banatu beharreko zenbateko finkorik), eskatutako dirulaguntza guztiak ematen dira, baldintzak betez gero. Deialdi honi esker, etxebizitza barneko lan txikietarako zein eraikin osoari dagokion komunitate mailako lan handietarako dirulaguntza interesgarriak eskura daitezke.

Zaharberritzearen sustapena indartzeko asmoz, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, zaharberritze-lan babestuek egiteko auzokideen komunitateei emandako dirulaguntzak zerga-ordainetatik salbuetsita egonena dira, laguntzen jasotzaileek urteko 30.000 eurotik beherako errenta izanez gero.

[2017an](#), 18 milioi euro baino zerbait gehiago eman ziren zaharberritzeetarako diru-laguntzetan; hala, 4.128 etxebizitzari eragin zien 1.212 espediente tramitatu ziren, 50 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egin zelarik.

### **Estatuaren laguntzekin bateragarriak**

Gaurdaino, Nafarroa izan da, Asturiasko Printzerriarekin batera, zaharberritze-lanetarako laguntzak Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioari atxikitako IDAE (Energiaren Dibertsifikaziorako eta Aurrezkirako Institutua) erakundeak emandakoekin bateragarriak direla dioen aitortpena lortu duen autonomia-erkidego bakarra.

Estatuaren laguntzak, Pareer II Programa epigrafeari atxikitakoak, jabeen komunitateei zuzenduta daude, eta laguntza-ildo desberdinen artean, eraikinaren inguratzaile termikoaren energia-eraginkortasunaren hobekuntza diruz laguntzen dute, nagusiki. Ondorioz, Nafarroako Gobernuak emandako laguntzari, eraikinaren zaharberritzearen % 30eko balioa duen laguntza osagarria gehi daki. Adibidez, inguratzaile termikoaren erreformarako, Nafarroako Gobernuak 6.000 euroko laguntza ematen baldin badu, 6.000 euroko beste laguntza bat gaineratu ahalko zaio, IDAEren eskutik.

Bateragarritasunari buruzko adierazpenak, [Foru araudian bildutako oinarrien](#) arabera, dirulaguntza gehiago eskatzeko aukera ematen du eta eraikinaren energia-eraginkortasuna hobetzeko zaharberritze-lanak erraztuko ditu, horixe baita pobrezia energetikoa saihesteko erarik onenetakoa, auzokide guztiek hileko fakturan aurreztu eta berokuntza sistemak eragindako ingurumen-inpaktua murriztea ahalbidetzen duena.

### **Zaharberritzea tramitatzea erraza da**

Etxebizitza baten edo etxebizitza-eraikin baten zaharberritzea abiatzeko prozedura oso erraza da. Aski da Zaharberritzeko Bulegora (EEZB) joatea. Beti dago baten bat inguruan: guztira, 9 bulego daude lurralde osoan zehar, eta horietan zaharberritze-lanetarako laguntza eta aholkularitza emateaz eta

espedienteak tramitatzeaz arduratzen diren arkitektoak daude, goi-mailakoak zein teknikoak.

Nafarroan dauden EEZBen zerrenda eta udalerrien arabeko kokapena Etxebizitza Departamentuaren webguneko [esteka honetan](#) argitaratu da.